

# SERGEI RADCHENKOK ZUZENDUTAKO ERRUSIAKO BALLE T NAZIONALA EUSKALDUNA JAUREGIRA ITZULIKO DA “BELTXARGEN AINTZIRA”-REKIN

**Konpainiak 30 urte daramatza munduko eszenatokirik onenetan dantzan eta datorren igandean, urriaren 31n, 20:30ean, Euskaldunako Auditoriumean arituko da**

*Bilbon, 2021eko irailaren 15ean*

Euskalduna Bilbao

Sergei Radchenko, Bolshoi Antzokiko bakarlari ospetsu izandakoa, Euskalduna Jauregian izango da datorren urriaren 31n, 1989an berak sortutako Errusiako Ballet Nazionalarekin, “Beltxargen aintzira” eskaintzeko.

Duela 30 urtetik hona bost kontinenteetako eszenatokirik onenetan ari da konpainia; pandemiak aurreikusitako bira guztiak bertan behera uztera behartu bazituzten ere, 2021ean eta 2022an bere sorreraren 30. urteurrena ospatuko dute, ondoen dakiten moduan: euren artea eta magia agertokian eskainiz. Horrela, urriaren 31n, igandean, 20:30ean, gauza bera egingo dute Euskaldunako Auditoriumean, P.I. Tchaikovskyren “Beltxargen aintzira” dantzatzuz.

Auditoriumeko oholtza gainean 40 dantzari bilduko dira, Errusiako Ballet Nazionalaren emanaldi guztietan sortzen den magia eta eszenaratze ahaztezina eskaintzeko.

**Bakarlarien zerrenda**

- Maria Klueva

- Alexandra Krukova
- Ekaterina Tokareva
- Nurlan Kinerbayev
- Vladimir Tapkharov
- Evgeniy Yermakou

Azpimarratzekoa da Sergei Radchenkoren Errusiako Ballet Nazionalaren “Beltxargen lakua” lanaren bertsio honek Dantza ikuskizun onenaren saria lortu zuela 2017an Toledon, “Premios Teatro de Rojas XXVI Edicion” izenekoetan.

Sarrerak [www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus) webgunean eta ohiko beste kanal batzuetan eros daitezke, 42 eurotik hasita (kudeaketa gastuak barne).